

BAKIO / Liburuen izpiak hartuz

IZAR MENDIGUREN. BAKIO. Busti gabe begiak freskatzeko aukerak izen bat du Bakion (Bizkaia), Bibliohondartza. 2007ko udan jarri zen abian lehenengo aldiz, eta harrezkeroztik izan duen harrera bikaina ikusita, aurten ere Bakioko Udalak irakurtzea gogoko duen orori ateak zabaldu dizkio. Helburua hondartzan eta pasealekuaren inguruan irakurketarekin gozatzeko aukera eskaintzea da. Horretarako, liburuak maileguan eskatzeko aukera ematen dute, baita egunkari eta aldizkariak irakurtzeko ere. Irakurtzeko toki egokia eta hirurehun liburu dituzte. Adin guztientzat, eta guztientzat adina.

Sarai Redondo da bertako arduraduna. Astelehenetik ostiralera lan egiten du, Bits-gane eraikinaren ondoan ezarritako txabolan. Goizetan 11:00etatik 14:30era egoten da bertan, eta arratsaldeetan 17:00etatik 19:30era. Lan honetan diharduen lehen uda du, baina Bibliohondartza arrakasta izaten ari dela iruditzen zaio. Egunero 50 pertsona inguru etortzen dira, gehienak aitona-amonak edo zaintzailearekin etortzen diren umeak. Ingrid Miguel, esaterako, 18 urteko ume-zaintzailea da, eta eguneroko geltoki du Bibliohondartza: Bi ume zaintzen ditut, bat goizetan eta bestea arratsaldeetan. Oso ondo iruditzen zait tankera honetako ekimenak antolatzea, Bakiok hondartzaz gain ez baitu egiteko gauza askorik. Umeekin etortzeko aukera oso ona da, eguraldi txarra dagoenean jostatzeko era berri bat delako.

Euskarazko zein gaztelaniazko genero guztietako bildumak dituzte: ipuinak, komikiak, eleberriak... Baita dibulgazio aldizkari edo kostaldeari eta itsas inguruneari buruzko liburuak ere. Gaztetxo asko komikiak eramatera etortzen dira, baina gehien irakurtzen diren liburuak eleberriak dira. Intrigazkoak eta amodiozkoak ere badaude, baina ez dira horrenbeste hartzen. Helduek hamabost egun dituzte liburua irakurtzeko, eta gazteentzako liburuak aste baten buruan itzuli behar dira.

Eguraldia iragartzen ez dakien arren, eguraldiaren eragina zerbitzuan igartzen dela uste du Redondok: Egunero batez beste bost liburu eramaten dira, baina eguraldi ona dagoenean hamar inguru mailegatzen ditugu. Horretarako, gutxienez baldintza hauetako bat betetzea ezinbestekoa da: Bakioko liburutegiko agiria izatea, Ona txartela edukitzea, Izenpe txartela erakustea (kiroldegian erabiltzen dena) edo Euskadiko Liburutegi Sareko zein sare horretako edozein liburutegitako erabiltzailea izatea.

Arratsaldeetan, berriz, kioskoei konpetentziarik ez egiteko, egunkariak jartzen dituzte erabiltzaileen eskura. Jose Puretak beste askok bezala, uda Bakion igarotzen du, eta albisteak irakurtzera joaten da egunero seme-alabek ipuinak irakurtzen dituzten bitartean. Oso gustura egoten naiz hemen, baina ekimenak abuztua amaiera arte iraun beharko luke.

Tailerrak ostegunetan

Ostegunak, ordea, bereziak izaten dira, egun osoan tailer bereziak antolatzen dituzte eta. Bihar, adibidez, ipuin karaokea izango dute Bakion. Beste tailer batzuen artean, berriz, Kamishibai (jatorri japoniarreko ipuinak) ezagutu ahal izango dute bertaratzen direnek. Olatuak bezala, luze zein labur, handi zein txiki, abentura bat bizi nahi duenak badu zer hartu. Eguzkia ez bezala, Bakioko Bibliohondartza ez baita gordeko.